

GOIENER SOZIALA PROGRAMA

AURREKARIAK.

GOIENEReko pobrezia energetikoaren taldeak hainbat jarduketa egin ditu pobrezia energetikoaren arloan, zehazki, **USURBIL** eta **ZARAUTZ**eko udaletan. Gainera, esperientzia du elektrizitatearen fakturari buruzko hainbat tailer antolatzen eta horri buruzko araudiarekin lotutako guztian. Hona hemen jarduketa horien ondorioak, labur azalduta:

- Pobrezia energetikoan dauden kontsumitzaileei eginiko kontu-ikuskaritzen arabera, aztertutako HPKUen portzentaje altu batean aurrezteko gaitasuna dago administrazio-jarduketan bidez (potentzia, tarifa eta, nahi izanez gero, Bonu Soziala).
- Gomendatutako hobekuntzak ez dira aplikatzen, edo ez zaizkie behar bezala transmititzen amaierako erabiltzaileei.
- Neurri guztiak ezin dira aplikatu, zehazki Bonu Sozialarena (BS), hartzaileek ez dituztelako baldintza guztiak betetzen.

Hobekuntzak ez aplikatzearen arrazoietakoa bat bi faktoreren arteko konbinazio bat da: batetik, **utzikeria**, amaierako erabiltzaileak Udalaren laguntzaren bat jasotzen duelako (“zertarako hartuko dut lan hori, jada ordaintzen didate eta”); eta, bestetik, **gizarte-zerbitzuak kolapsatuta egoten direla** eta kontu hori elementu burokratiko gehigarri gisa ikusten dutela eta ahaleginak ez duela aurreztutakoa konpentsatzen.

Duela gutxi beste TAILER bat egin zen IRUN udalerrian gizarte-langileekin eta sektoreko langileekin, eta, 24 pertsonari inkesta azkar bat egin ondoren, ikusi zen pertsona bakar batek (1) baino ez zuela ORDU-BEREIZKETA. Horrek erakusten du ibilbide luzea dagoela egiteko partikularren kontratazioak hobetzeko, eta hobekuntza hori pobrezia energetikoa jasaten duten familiei ere egin dakiekeela.

HAUTEMAN DEN ERREALITATEA.

Aurreko esperientzia kontuan hartuta, eta pobrezia energetikoa jasaten duten familien kasuari aplikatuta, hainbat kolektibo mota bereizten ditugu:

1. **BONU SOZIALA JASOTZEN DUTEN KOLEKTIBOAK.** Kolektibo hori aztertutako kasuen % 25 dira gutxi gorabehera, eta araudi berriarekin behera egin dezake portzentajeak. GOIENER SOZIALA programa ez da kolektibo horrentzat izango.
2. **BONU SOZIALA JASO LEZAKETEN KOLEKTIBOAK.** Baina ez dute, arrazoi hauengatik:
 - a. Utzikeria.
 - b. Horren berri ez izatea.
 - c. Izapide neketsuak.
 - d. “Beste batzuek ordaintzen didate”.
 - e. Merkaturatzaile jakin batzuen jarduketa ez oso etikoak.

3. **BONU SOZIALA JASO EZINGO DUTEN KOLEKTIBOAK.** Ez dituztelako gobernuak bonu soziala jasotzeko ezartzen dituen baldintzak betetzen, nahiz eta gizarte-zerbitzuek beharra duten kolektibotzat jo ditzaketen.

GOIENER SOZIALA 2. eta 3. kolektiboentzat dago pentsatuta.

Argitu beharra dago familia hartzaileen prekarietate-egoera ezagutzen duten **gizarte-zerbitzuek eta tutoretza-fundazioek identifikatutako pertsonak izango lirakeela GOIENER SOZIALA programaren hartzaileak.**

ZER DA GOIENER SOZIALA PROGRAMA?

Pobrezia energetikoan bizi diren familien hornidura elektrikoa optimizatzeko, fakturatzeko eta horri jarraipena egiteko zerbitzu bat da. GOIENERek hitzarmen bat sinatu du zenbait administrazioekin, eta administrazio horietako agente espezializatuek identifikatu dituzte familia horiek.

Zerbitzuak hiru oinarritzko jarduketa ditu:

- Kontratutako **potentzia** hobetzea, ahal izanez gero.
- **Ordu-bereizketa** erabiltzea, fakturaren zenbatekoa murrizteko.
- GOIENER SOZIALA **TARIFA** aplikatzea.

GOIENER SOZIALA TARIFAK ESTATUAK definitutako KTBP tarifa simulatuko luke. 2. KOLEKTIBOko kasuetarako 'zubi' tarifa bat da, eta 3. KOLEKTIBOko kasuetarako, gizarte-zerbitzuei LAGUNTZEKO TARIFA bat.

GOIENERek ezin du BONU SOZIALA eman, baina **ZUBI-TARIFA** bat diseina dezake **GIZARTE ZERBITZUEI eskaintzeko** (edo tutoretza duten eta tutoretzapekoen izenean sina dezaketen FUNDAZIOEI), helburu hauek betetze aldera:

- Aurreko atalen identifikatutako kasuetako **horniduraren kudeaketa** GOIENERen esku uzten da. Goiener arduratzen da hornidura optimizatzeaz. **Energiaren kostua KTBPren antzekoa da;** hortaz, gizarte-zerbitzuek ez daukate Azken Baliabideko Merkaturatzailearengana jotzeko 'beharrik'. GOIENERekin harremanetan jarri besterik ez dute, behar diren hobekuntzak egiteko jarrera PROAKTIBOA baitu.
- GOIENERek hornidura optimizatzen zaion familiari fakturatu dio. Horrez gain, faktura egiten duen bakoitzean horren kopia bidal diezaieke gizarte-zerbitzuei, edota GOIENERek kudeatzen duen kolektiboari dagozkion fakturatu beharreko puntuen laburpen bat. Hala, haiek ere jakin dezakete zer faktura egiten diren, nori igortzen zaizkion eta zenbatekoak diren. **Prebentzio-lana egin dezakete.**
- **Zenbatekoa ordaintzen ez bada, abal-emaileak sinatzen du dagokion akordio-eredua, ERREFERENTZIAKO MERKATURATZAILE guztiekin sinatzen duena bezalakoa,** ez ordaintzearen ondorioz energia etetea saihesteko. GOIENERek kudeaketaren onuradun izan daitekeen familia gisa identifikatu duen familia batek ordaindu gabe utzitako zenbatekoaren ABAL-EMAILE bihurtzen da.

- **Akordioa ez da mugagabea.** Une jakin batean familiaren estatusa aldatzen bada...
 - dagoeneko ez dagoelako prekariedade-egoeran eta, horrenbestez, ez dituelako betetzen gizarte-zerbitzuek laguntzak jasotzen jarraitzeko ezarritako irizpideak, askatasun osoa du edozein enpresetara aldatzeko... edo Goienerreko bazkide bihurtzeko.
 - lehen eskatu ezin zuen BONU SOZIALA eska dezakeelako, edozein unetan egin dezake aldaketa, GOIENERen ez baitago gutxieneko egonaldirik.

ZERGATIK DA ONA GIZARTE ZERBITZUENTZAT?

- **Kasu korapilatsuak desblokeatu egiten dira,** kudeaketa GOIENERen esku uzten delako.
- **Udal-aurrekontuetan** Gizarte Larrialdiko Laguntzetara bideratutako **ordainketak murrizten ditu,** baliabideak hobetuz familia gehiagori laguntzeko edo Udalak egokitzat jotzen duen beste edozein xedetara bideratzeko.
- Familia bakoitzari fakturatuko zaionaren **aldian aldiko abisuak** ematen ditu (prebentzioa).
- Familia bakoitzari urtean zehar fakturatzen zaionaren laburpena ematen du (trazabilitatea).
- **Udal-baliabideak behar bezala erabiltzen direla** transmititzen du sektore zehatz honetarako laguntzen esparruan.
- **Ahalegin txikiarekin emaitza** onak lortzen ditu.

ZER-NOLAKO ERAGINA DU GOIENERRENTZAT?

- **Ekonomikoki, oso txikia.** Urtean 3,45 kW-ko kontsumoa duen familia batek urtean 17 euro inguruko marjina utziko luke.
- **Ez du dirurik galtzen** eragiketan.
- **Ez du BONU SOZIALIK ematen,** hori ez baita xedea (Bonu Sozialak kostuaren azpitik finantzatzen du).
- **EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN bokazioa sendotzen du.**
- Udalerrien aliatu gisa posizionatzen laguntzen dio.
- Gaur egungo merkatuan inork eskaintzen ez duen zerbait ematen du (berrikuntza).
- **Ez da karitatea (ez du ezer oparitzen),** baina elkartasun-mekanismoa transmititzen du. Pertsonen zerbitzura jarritako tresna bat izan daiteke merkaturatzailea.
- **Joera sor dezake** eta erakunde BOTERETSUAK behartu KONPAINIA ELEKTRIKO HANDIEI benetako neurriak exijitzera, helburu hori bera lortzeko.
- GOIENERen bazkideei, egungoei nahiz etorkizunekoei, helarazten die egitasmo hau sustatzen ari direla beren kontsumoarekin eta kooperatibistaren tarifa estandarrarekin. **Elkartasuna denon arteko kontua da.**

